

Norvegiaren nazio-askapena, autodeterminazio-kasu bat XX. mendeko European

Txillardegi, EHUKo irakaslea, UEUKidea

(Udako ikastaroan emandako hitzaldiaren laburpena)

Problema geografikoki kokatzeko, joan den mendearen bukaerako mapa politiko bat paratu nuen arbelaren gainean:

Atlas de Géographie, Grosselin-Delamarché-Paris, 1869. urtekoa. Bertan Norvegia eta Suedia elkarturik ageri dira, eta larrosa kolorez tindaturik.

Errepublikak Baltikoak, Suomi eta Polonioa Errusiaren barruan daude, kolore horixka berean; Irlanda, Britainia Nagusiaren barruan; Erroma inguruan, Estatu pontifikalak kolore morez; Moldavia-Bulgaria-Rumelia-Albania-Serbia-Bosnia, Turkiaren barruan; Europa erdian, nagusi, Austria-Hungaria inperio erraldoia.

Helburu bakar bat maparen erakusketan: Europako mugak ez dira aldakaitzak izan.

Europako giroa gogoraraztekotan, hona hemen xehetasun gogoangarri batzuk.

Norvegiak bere nazio-askapena lortu zuen urtean (1905), atentatu famatu bat egin zen Parisen. Loubet Presidentea eta Alfonso XIII.a, espainiar errege gaztea, zihozten karrosa, eraso izan zen; baina bi buruzagiak zaurigabe gertatu ziren.

Aste haietan, era berean, eta Euskal Herrian zegoen giro politikoaren ezaugarri, Tolosako mitina (ekainaren 18an) izan zen. Mitinburu, Tirso Olazabal irundarra, Karlos VII.aren konfiantza-gizona izandakoa (mitinaren inguruko egunetan, beraren semea erregegai ofizial modura agertzen zen, Don Jaime de Borbon alegia). Mitineko hizlari nagusiak: Tirso Olazabal bera, jakina; Victor Pradera; gero Franco-k Gorteetako Presidente izendatuko zuen Esteban Bilbao; eta euskal munduan, Euskaltzaindian bereziki, funtsezko pilare izango zen Julio de Urquijo jauna, Tirso Olazabal-en suhia.

Mitinaren amaieran bi telegrama bidali ziren:

1. Vaticano-ra bata, karlista-jaimisten fidelitasun kristaua agertzeko.
2. Venezia-ra bestea, Karlos VII.ak famatu bihurtu zuen errege-jauregira.

Hots, giro horretan mamitu zen Norvegia-ren Burujabetza.

NORVEGIAREN ASKAPENEAN, HIRU URRATS NAGUSI

1. Hizkuntza-askapena

Hizkuntzaren alorrean kokatuz gero, Norvegiak bere gaintasuna lortzeko, Danimarkatik bereiztea zen helburua. Ez Suediatik, nahiz politikoki 1905an Stockholm-en menpean egon, eta ez Kopenhage-ren menpe.

Azalpena historikoa da. Norvegia 417 urtez egon zen Danimarkaren menpean (1397-1814), eta, kulturaren aldetik, eragin nagusia Danimarkatik zetorkion, ez Suediatik (Suediaren menpean 1814-1905 tartean egon zen 91 urtez, eta autonomia handiz).

Hizkuntza-askapenaren profeta Henrik Wegeland izan zen (1808-1845). Berak esan ohi zuenez, “Norvegiak ez dauka zertan izan Danimarkaren kultur-kolonia”.

Norvegiera eta daniera hizkuntza jatorrikide hurbilak izanik, benetako diglosia sortu zen. Norvegiako Administrazioa eta kultur mundua danieraz burutzen ziren; eta herri txikietan eta eskualde urrunetan norvegierazko dialektoak erabiltzen ziren. Hizkera errespetagarria, puntuzkoek eta hiriburukoek (Kopenhagen-goek bereziki) erabiltzen zutena, “*Riksmal*” izenekoa zen, hots, batua, idatzia. Hizkera arrunta, berriz, herritik herrira aldakor agertzen zena, “*Landsmal*” izenekoa zen. Dikotomia oso adierazgarria da : “Estatua”ren mintzaira, batetik; “Herria”rena, bestetik.

Ez da gaurko gure gaia norvegieraren normalizazioaren gorabeherak aztertzea. Ivar Aasen izan zen “norvegiera batua”ren apailatzailea (1813-1896).

Norvegiera batua, hala ere, ez zen inoiz erabat nagusitu. Hirietan, batez ere, daniera gelditu da nagusi (orain, “*Bokmål*” izenaz ofizialki bataiatua; “liburuaren hizkera”); eta herri txikietan, oro har, “norvegiera berria”, “*Nynorsk*”, Aasen-en proiektuaren arabera.

Norvegia Askatuan, ondorioz, bi hizkuntza ofizial daude, oso elkarren antze-koak. Baina biga, ez bat. Goiburu honen arabera: “Idatz *bokmål*; mintza *nynorsk*”.

2. Burujabetza politikoa

Politikaren alorrean aurrerago iritsi dira norvegiarrak; alor honetan, etsaia ez da Danimarka izan, Suedia baizik.

XIX. mende osoan barrena, Suediaren atal izan zen Norvegia; baina autonomia zabalaz beti.

Eta hizkuntzaren alorrean H. Wegeland eta Aasen-Knudsen bikotea aipatu behar diren bezala (eta danierak eta norvegiarak elkar-ulerkuntza ematen duten hizkuntza ahaideak direla ahantzi gabe), politikaren alorrean beste bi izen gogorazi behar dira bereziki: Steen ezkertiar abertzalearena batetik, 1902. urtera arte postu erabakiorretan jokatua, eta P. Christian Michelsen ontzigilea bestetik (Bergen 1857/Fjösanger 1925), Norvegia Askatuaren aita.

Danieraz eta norvegiaraz mintzatuz gertatzen den elkar-ulerkuntzaren maila neurtu ahal izateko, xehetasun bakar hau: Ipargar Kontseiluaren bilkuretan norik bere nazio-hizkuntza erabili ohi du, besteek ulertu bederen egiten diotelako segurantzaz.

Horregatik, ipargar estatu horietan “elebitasuna” ez da batere zabaldua: elkar-ulertzeko, bederen, norvegiar batek ez du suediera “ikasi” behar.

Xehetasun horiek kontuan hartzea beharrezkoa da Norvegiako hizkuntza-ara-
zoak konprenitzeko.

Norvegiak eta Suediak, bestalde, “Erresuma Batuak” izenez, elkarturik kurritu zuten XIX. mendeko kondaira. Baina elkarturik joan arren, Suedia izan zen bikotearen ardatza (baita demografikoki ere). Hala ere, 1884an norvegiar jatorriko klase berri bat iritsi zen agintera. Eta honek norvegiar-joerak azkartu zituen.

Puntu honetara iritsita, Suediako erregetzaren kondaira egin behar da oso laburki bederen bada ere.

Napoléon Bonaparte famatuaren mariskala izan zen Jean Baptiste Bernadotte biarnesa. Paue-n 1763an jaioa, Austerlitz-en eta beste bataila batzuetan parte hartu zuen. 1806an Lübeck-en preso harrapatu, adiskidetasun handia egin zuen Berner kondearekin (suediar militarra hau).

Gerra amaiturik, eta suediar koroa erregegairik gabe zegoela, 1810ean erregetzarako proposatu zuten biarnotar mariskala. Baita hautatua izan ere. Erabat suediar, Frantziaren etsaiekin egin zuen bat; eta Napoléon-en porrota gertatzean, Parisen sartu zen armada “askatzaileekin” (1813).

Ororen buru, Suediako errege izendatu zuten, “Karlos XIV.a” izenez. 1815eko abuztuaren 6ko “*Rigsakt*” delako suediar konstituzioa, Bernadotte Mariskalaren bultzadari zor zaio. Horretara, Stockholm-eko lege nagusiak 1844. urtera arte Errege egon zen biarnotar militarri dagozkie.

Hots, 1905. urtean, Norvegiak bere nazio-askatasuna lortu zuen garaian, Oskar II.a izenekoa zen Suediako Errege, Bernadotte Mariskalaren biloba hain zuzen.

Une hartan 80 urte zituen Oskar II.a erregeak (1825ko otsailaren 21ean Stockholm-en jaio baitzen). Osasunez dextente ahuldua, horrek ere bere eragina izan zuen Norvegiako kinkaldian.

Gertakarien ondorioz Oskar II.a hogeita hamahiru urtez egon zen “Erresuma Batuetako” errege (Suedian eta Norvegian, beraz): 1872tik 1905. urtera arte. Baina 1905/1907 urteetan Suediako errege izan zen bakarrik; 1905ean Norvegiak Askatasuna lortu zuelako.

Gogora ditzagun laburki gertakari nagusiak: 1885ean hasi ziren tirabirak. Norvegiarrek bi helburu zeuzkaten: 1) kanpo-harremanak zuzenean eraman nahi zituzten Christiania-tik (1925ean “Oslo” izenaz bataiatua); 2) arazo kontsularrak zuzenean eraman nahi zituzten, Stockholm-etik pasatu gabe. Interes ekonomikoak zaintzen zituzten, beraz, gordin-gordinki.

1891n norvegiar kontsulatu-sare horren beharra helburu nagusi bihurtu zen; batzuetan ordezkaritza diplomatikoen beharra bera bezain hertsiki.

1903ko urtarrilaren 21ean bere gailur larria iritsi zuen krisiak, eta Suediak onartu egin zuen Norvegiaren eskabidea. Ordutik aurrera, bi kontsulatu-sare desberdin izango ziren: bata Suediak zuzendua, eta bestea Norvegiaren agindupean.

Dena dela, Suediar gobernuak beldurrez ibili zen proposamena Stockholm-eko Parlamentuan aurkezteko.

Azkenean, 1904ko azaroan, Norvegiak berea Christiania-n aurkeztu eta 6 hilabetetara, beldurrak egia bihurtu ziren: Suediako Parlamentuak atzera bota zuen kontsulatu paraleloen proiektua.

Norvegiar abertzaleek, Michelsen-en gidaritzapean, “aski” esatea erabaki zuten 1905eko martxoaren 15ean.

Horretara, “*Storthing*”ean (Parlamentuan, alegia) agiri hau irakurri zuen Michelsen-ek: “Guk, norvegiarrok, eskubidea dugu, Historiak eta Konstituzioak baietsia, geure nazio-biziera propioa egiteko”. Hitz horiek entzutean, norvegiar diputatuak oro jaiki, eta bururaino joatea erabaki zuten. Xehetasunetan sartzea alfer-lana litzateke.

Oskar II.ak ez zuen Stockholm-en errezibitu nahi izan Norvegia-ko Parlamentuak (“*Storthing*” delakoak) bidalitako Batzordea. Baina, bai Batzorde hori bai Kontsulatu-Sare berezia abiatzeko erabakiak, “ahobatez” erabaki zituen norvegiar aginteak.

Impasse osoa, beraz. “*Il nous est difficile, à nous autres Norvégiens, de nous imaginer que le représentant du pouvoir royal en Norvège puisse refuser sa sanction à une loi réclamée aujourd’hui d’une manière aussi unanime par le peuple norvégien; et qui, depuis 1892, a toujours été victorieuse aux élections avec une puissance de plus en plus grande*”.

Eta ondorioa ateratzen: “*Le pouvoir royal s’étant placé lui-même hors de fonction, le Storthing doit prier l’ancien ministre —Michelsen gobernuburu— de continuer à fonctionner et d’exécuter les actes gouvernementaux comme si le pouvoir royal était présent*”.

Christiania-ko norvegiar gobernuak dimisioa aurkeztu zuen bere osoan, agintea “*Storthing*”ak hartu zuelarik. Honek Suediarekiko Batasuna deuseztatu zuen, eta Norvegiako Tronoa “hutsik” zegoela aldarrikatu. Bertatik beste errege bat bilatzen hasi zen. 1905eko ekainaren 7a zen. Erabaki larri horiek ahobatez hartu zituen Christiania-ko Parlamentuak. Suediak zer egingo? Armada bidali zuen Christiania aldera, eta gerra piztuko ote zen beldurra hedatu zen. Stockholm-ek, azkenean, “negoziazioak” irekitzea erabaki zuen. Baina 3 baldintza hauek jarri zituen:

- 1) Berehala “plebiszito” bat antolatzea Norvegian.
- 2) Norvegia-Suedia mugako gazteluak eta gotorlekuak erraustea.
- 3) Elkarrekiko konponezinak gertatuz gero, indar militarra ez erabiltzea, baina arazoa 10 urtez Haga-ko Tribunalaren eskuetan jartzea.

Eta 1905eko abuztuaren 13an herri-plebiszitoa antolatzea erabaki zen. Galdera bakarra: Suedia-Norvegia-ren Batasuna desegitearen alde zaude ala “Erresuma Batuak” aurrerakoan ere elkarturik jarraitzearen alde zaude?

Emaitzek ez zuten zalantza izpirik utzi: 368.211 boto berezketaren alde eta 184 boto baturik jarraitzearen alde.

Hori ikusita, Suediak Norvegia Askatua onartzea erabaki zuen. Errege bat ere aurkitu zuten: Britainia Nagusiko Edward VII.aren suhia (Maud alabarekin ezkondua); eta “Haakon VII” deituraz izendatu zuten 1905eko azaroaren 18an. Artean (urriaren 27an) Oskar II.ak errenuntzia adierazi zuen espreski Norvegiaren gaineko asmoei zegokienez.

Haakon errege berriak trantsizio guztia gidatu zuen, heriotzaren ondorioz 1957ko irailaren 21an Olaf V.a semeari erregetza utzi arte.

3. *Burujabetza ekonomikoa*

Jadanik esana dugunez, Norvegiak garrantzi handia eman zion hasieratik burujabetza ekonomikoari.

Norvegiar kontsulatu-sare propioa izan zen 20 urtez (eta Norvegia Askatua sortu arte) oztopo-harri nagusia.

Borroka harmaturako prest?

Norvegiak ez zuen uste Suedia “konkistatzaile” modura jokatzera sekula iritsiko zenik. Baina harra barruan izan zuen. Gauza ezaguna da, adibidez, “*Storthing*”ak berak, 1905. urtearen inguruan, diru-laguntza gaitzak eman zizkiela tiro-elkarteei. Eta helburua argiro azaldu zuen Euskal Herriko prentsak:

“concedió crecidas subvenciones a las Sociedades de tiro; para que adiestraran a los ciudadanos en el manejo de las armas de fuego y las pusieran en condiciones de poder luchar por la independencia” (Paristik idatzitako kronikan, 1905eko ekainaren 13an, Donostia-ko “La Voz de Guipúzcoa”n irakurgarri).

“La Norvège n'a pas hésité à rompre l'Union, parce que son armée est prête à toutes les éventualités” (Hamburger Nachrichten).

Baina Suediak ez zuen indarra erabili. Eta, 1905az geroztik, Norvegia Erresuma Askatua da, eta Suediarekin harreman onetan bizi da.

BIBLIOGRAFIA APUR BAT

Berezketaren kondaira labur baina zehatza nahi izanez gero:

BENOIST, C., “La Sécession de la Norvège” in *La Revue des Deux Mondes*, 1905- (850/874).

Liburutan bilatu nahi izanez gero:

MIDGAARD, J., (1974). *Histoire de la Norvège*. Oslo: Tanum.

La Norvège: Expos. Paris 1900. Ouvrage officiel (Dareste): Impr. Centrale, Christiania.

GJERSET, K., (1932). *History of the Norwegian People* (2 lib.) New York.

JEANNIN P., (1965). *Hist. pays scandinaves*. Paris.